# BESTELAKO XEDAPENAK

## OGASUN ETA FINANTZA SAILA

## 5019

*EBAZPENA, 2014ko azaroaren 3koa, Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordearena, Konekta Zaitez@Banda Zabala izeneko egitasmoaren barruan, banda zabaleko Interneten sartzeko diru-laguntzak emateko dena.*

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduak (EHAA, 147. zk.), Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko otsailaren 18ko Aginduak aldatutakoak (EHAA, 57 zk.), Konekta Zaitez@Banda Zabala Proiektuaren barruan Interneterako banda zabaleko sarrera-zerbitzuak emateko laguntza-neurriak ezartzen ditu.

Aipatutako aginduan, diru-laguntzetako programa bat eratzen da. Diru-laguntza horien xedekoak dira, hain zuzen ere, banda zabaleko Internetekin konektatzeko, alde batetik, erabiltzaileak behar duen terminal-ekipoa erostea, eta, bestetik, frekuentzia libreetako (WIFI edo antzekoak) bandako puntu-puntu anitzeko hari gabeko teknologietan oinarritutako instalazio kolektiboak eskuratzea. Halaber, diru-laguntza horiek emateko prozedura eta irizpideak arautzen dira eta laguntzen zenbatekoa eta bera aldatzeko prozedura ezartzen dira.

Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordearen 2014ko irailaren 8ko Ebazpenaren bitartez, 2014ko ekitaldirako laguntzei dagokienez, guztira aurreikusi den zenbatekoa onartu da. Ebazpen horretan guztira ezarri den zenbatekoa ehun eta hamar mila (110.000) eurokoa da. Ezarritako konponbide teknologikoari dagokionez, erositako ekipo terminal bakoitzeko aleko zenbatekoa berrehun eta laurogeita bat (281) eurokoa izango da.

Halaber, esandako agindu horren 10. artikuluak Itelazpi izendatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren erakunde laguntzaile, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 52. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, eta erakunde laguntzaileak egindako proposamena ikusi ondoren, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onuradunei jakinaraztea banda zabaleko Internetera sartzeko diru-laguntzak esleitu direla Konekta Zaitez@Banda Zabala izeneko egitasmoaren esparruan, honi erantsita doakion eranskinean jasota dauden kopuruen arabera.

Bigarrena.– Aipatutako 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren 13.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Itelazpi baltzu publikoak izango du onuradunak jakinarazteko eta operadoreari horien konturako diru-laguntzak ordaintzeko ardura.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Ogasun eta Finantzetako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko eta erakunde onuradun bakoitzari jakinarazteko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 3a.

Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordea,
CARMELO ARCELUS MÚGICA.

ERANSKINA

KONEKTA ZAITEZ@BANDA ZABALA

ONURADUNEN ZERRENDA – ESLEITUTAKO DIRU-LAGUNTZAK

| Eskatzailea | Diru-laguntza (eurotan) |
|---|---|
| 1.– Abanzabalegui Aranguren Amaia | 281 |
| 2.– Aguirre Areitio Gema | 281 |
| 3.– Alonso Lopez Ana Belen | 281 |
| 4.– Alvarez Leiva Cristina | 281 |
| 5.– Aracama Azurmendi Juan | 281 |
| 6.– Arin Etxegintza, S. L. | 281 |
| 7.– Artzabal Supermerkatua, S.L. | 281 |
| 8.– Asociacion De Permacultura Kiribilore | 281 |
| 9.– Barayazarra Gangoiti Maria Jesus | 281 |
| 10.– Bereciartua Bidegain Maria Coro | 281 |
| 11.– Comunidad Propietarios Urigoiena 33 A-B | 281 |
| 12.– De Miguel Taldea, S.L. | 281 |
| 13.– Dorronsoro Arenal Jose Luis | 281 |
| 14.– Erkoreka Baraiazarra Aiert | 281 |
| 15.– Escartin Miguel Silvia | 281 |
| 16.– Esnaola Zubeldia Merche | 281 |
| 17.– Esquibel Aztelarra Ramon | 281 |
| 18.– Etxabarria Etebarria Jesus Maria | 281 |
| 19.– Fernandez De Pinedo Larrachi Ines Maria | 281 |
| 20.– Fraisoro Eskola | 281 |
| 21.– Fuentes Larrañaga Maite | 281 |
| 22.– Galabide Pellejero Agustin | 281 |
| 23.– Garmendia Otaño Leire | 281 |
| 24.– Garro Mendizabal, Jose Luis | 281 |
| 25.– Gomez Reino Alonso Antonio | 281 |
| 26.– Gonzalez Alaiza Martinez De Antoñana Ruben | 281 |
| 27.– Gordo Sanchez Natividad | 281 |
| 28.– Ichuaidze . Rusiko | 281 |
| 29.– Industrializacion De Labores Agricolas, S.L. | 281 |
| 30.– Isabel Atienzo Romanos | 281 |
| 31.– Jimenez Arano Nerea | 281 |
| 32.– Jorge Lopez De Alda Dorado | 281 |
| 33.– Jose Manuel Gomez Teja | 281 |
| 34.– Larrauri Novales Maria Gloria | 281 |
| 35.– Martinez Soto Miren Begoñe | 281 |
| 36.– Mendia Elustondo Maria Isabel | 281 |
| 37.– Olano Lope Marta | 281 |
| 38.– Onaindia Meabe Nerea | 281 |
| 39.– Ormaetxea Albodiga Pablo | 281 |
| 40.– Otegi Arbelaiz Eneritz | 281 |

| Eskatzailea | Diru-laguntza (eurotan) |
|---|---|
| 41.– Oteiza Garnacho Ignacio | 281 |
| 42.– Pagadi Elektrizitatea, S. L. | 281 |
| 43.– Pelaez Nuevo Jose Manuel | 281 |
| 44.– Perea Castillero Francisco Javier | 281 |
| 45.– Perez De Unzueta Arrieta Luis | 281 |
| 46.– Perez Puertas Marta | 281 |
| 47.– Prudencio Iturribarria Elejalde | 281 |
| 48.– Recuperacion De Materiales Industriales, S.A. | 281 |
| 49.– Redena, S.L. | 281 |
| 50.– Rodrigues Montes Nagore Cristina | 281 |
| 51.– Rubina Mendia Jose Antonio | 281 |
| 52.– Ruiz Caballero Vanessa | 281 |
| 53.– Sagarduy Crespo Ainhoa | 281 |
| 54.– Sainz Diaz Florencio | 281 |
| 55.– Sehli . Mohamed | 281 |
| 56.– Tellape, S.L. | 281 |
| 57.– Ugarriza Atxa Marina Iugatx | 281 |
| 58.– Urzan Bernedo Arkaitz | 281 |
| 59.– Ustaran Ramirez Javier | 281 |
| 60.– Yone Goiriena Etxabe | 281 |